


Astekaria

BARREN



Ez dagoela perretxekorik?

1 tgoi

ste.

PROVIECTOI

1121M ETHEIBARO BERRIKUNTZA ETA DEH

fil ii/E7ILIMM

SAN FRANCISCO KALEA 23, 74 10 94 • FAX. 74 39 74

OLAIZAGA KIROLDEGIA



HID
ROMASAM



- ✓ Erlaxapena
- ✓ Reflexoterapia
- ✓ Kirol masala
- ✓ Sendabelarrak
- ✓ eta abar...

BETI ZURE
OSASUNAREN
MESEDERAKO,
HONA HENIEN GURE
ZERBITZUAK

SAUNA



SAUNA



.11ij;1 1 i, 1 1 YA 1.1 111;
1 1/2

**Egun guztian zehar zuen
zerbitzura gaude.**

I filruide.e., 18 jai egunak barne.

r/JA 1,1 0 , rar)'cs YIPjfi gaude!



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edume Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.**KAZETARIAK:**Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.**MAKETATZAILEAK:**Maite Rementeria,
Edu Sanz.**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.**KOLABORATZAILEAK:**


frati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara aurgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galcios, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrariaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olgo Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zaboleta, Yulen Zaboleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imand Iarrariaga

INPRIMATEGIA:Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)**TIRADA:** 3.300 ale**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92**ISSN:** 1133-021X

elgoiBARREnek ez du bere gain hartzen aldizkarian odierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU**HAINBAT ABURU****Esikuhlerik eza**

Jakin badakigu, Euskal Herriak bizi duen egoera, politikoaren ondorio bat besterik ez dela. Zorionez edo zoritxarrez. Ez deritzot orain urte batzu baino parada hobean gaudenik; ingurua, giroa, elkarbizitza gero eta ustelagoa denaren susma daukat. Irakurri ohi ditudan eta jasan ohi ditudan gertaerek etorkizun goibel baten atarian gaudela baino ez didate adierazten. Ni neu gero eta ezkorragoa naiz eta errespetorik gabeko gizarte honek ekar lezakeenaren beldur naiz.

Baina ez noa amore ematera. Ez dut atzerapauso gehiago burutzeko asmorik ez gogorik. Ez ditut onartuko Nafarroa Espainia dela erakutsi nahian Goardia Zibilak azaldutako handikeria eta harrotasuna, eta ez nago erabilitako bortizkeria sekula gehiago pairatzeko prest; ez dut onartuko


nire euskalzaletasuna zalantzan jarriko duenik joera politikoa aitzakiatzat hartuaz. Bejondeiola Nafarroa Oinezera joateko eskubidea ukatu zidan azpeitiar santu hari!

Agian Batzuek zein Besteek irailleko azken igandeko festa soilik ospatuko banu nahiago lukete, han ez baitiet trabarik egiten. Akaso nor bere ghettoetan izkutatzea litzateke konponbiderik egokiena. Ni neu horretarako prest ez nagoenez, euskaraz dakidan bitartean, egon daitezkeen festa guztietara joango naiz, Batzuen erasoak zein Besteen debekua jasan arren.

Igandean jadanik konpromezu bat dut Legazpian. Diodana diodala, ni han izango naiz eta datorren urtean Tuteran ere bai, noski.

Gotzon Arrieta

*Eusko Jaurlaritzako'
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udak
diruz lagundu zko
aldizkaria*



GALDE

Udaltzainek ez al dute larunbat arratsaldeetako kaleko pixak zaintzeko asmorik?

Udaltzaingora deitu dugu eta zera erantzun digute: momentu honetan hiru udaltzain egoten dira larunbat arratsaldetako turnoan. Batek derrigorrez Udaltzaingoa egon behar duenez, bi lagunek zaindu behar al dute 3.000 gazte? Udaltzaingoa arduratzen tren-geltokira mugatu da, hemen baitago benetako arriskua. Gerora begira, hezitzaile lana laga eta salaketak janzeari ekingo diotela aipatu digute.

KEXAK

Pasa den igandean izan zen Perretxiku Lehiaketan parte hartu zuen talde batek deitu digu. Hauek, Karakate Elkarteari bidali nahi diote euren kexa. Izan ere, lehenengo saria VELA anaiek jaso zuten eta hauek 15 urte baino gehiago omen dute. Beraz, ezin dute perretxiku lehiaketan parte hartu.

Euskaldun osoa izateak merezi du

Duela urte batzuk Siadecok Elgoibarren egin zuen estudioan agertzen denez, gure herrian biztanleen %3,2ak dihardu urtez urte euskara ikasten edo lantzen (benetan proportzio urria) eta horietatik gehienak euskalduntzen ari direla zioen.

Kontuan izanik 15 eta 44 urte bitarteko helduen artean, %46,7a euskalduna dela, horietatik %lek bakarrik dihardu alfabetatzen edo EGA titulua prestatzen.

Datu honi begiratuz esan daiteke, euskaldunoi ere iritsi zaigula ordua geure burua euskaraz ere jartzen hasteko, garbi baitago euskara gero eta garrantzizkoagoa dela egunerokotasunean (lanean, harremanetan, familian, kirolatan...) eta ezin gaitezkeela konforma berba egiten jakinda bakarrik.

Zenbaterik ez ote ditu bere arazotoxoa izaten Euskaldunon Egunkaria, BARREN astekaria eta gainerako euskal prentsa nekerik gabe irakurtzeko, eta zer esanik ez bertan idatziz bere iritzia, ohar eta abarrak ager daitezen?

Laga ditzagun nekeak alde batera astean pare bat egunetan AEK euskaltegiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz eta goza dezagun, EUSKALDUN IZATEAK MEREZI BAITU.

AEK Euskaltegia

Isurketa gehiago ez

ilabete eskas iragan da Gazte Asanbladak San Lorentzo erreka-errekaren garbiketa burutu zuenetik. Ehundaka kilo zabor bildu genuen (plastikoak, beirak, burdina eta txatarra,...) eta baserri batzuen zakar jaurtiketa zein BERNARDO ECENARRO enpresaren isurketa toxikoak salatu genituen.

Berriz ere San Lorentzo erreka jaurtiketako isurketa kutsakorrek salatu beharrean aurkitzen gara. Oraingoan ALCORTA Y UNZUETA-ALYCO S.A. enpresak iraileko lehen asteburuan Kakatzako ingurua kutsatu du, ondorioz dozenaka amurrain hil direlarik.

Honenbeste kutsadura, isurketa toxiko eta abarrez, eta enpresek, Udalak zein beste erakundeek azaltzen duten axolagabekeria nazkatu gaude. Egunero ahobetez "garapena" eta "ongizatea" bezalako hitzak darabiltzaten politikari eta enpresariak aurpegia lotsaz erori beharko litzaieke egiten ari direna ikusteaz soilik (adibide bezala Deba "ibaia" daukagu), baina beti bezala nahiko kezka dute poltsikoak ahal duten azkarren diruz betetzearekin.

Akaso ez daukagu erreka bizi eta garbiak -landare eta animaliak barneizateko eskubiderik?

Eraso ekologiko hauek (eta etorkizunean gerta daitezkeenak) salatzen jarrituko dugula argi utzi nahi dugu Gazte Asanbladako kideok.

**NATURA DEFENDA
DEZAGUN. ERREKAK GARBI.
Gazte Asanblada**





pste honetako erretratua Maite Vallejok lagatakoa da. Berau 1952. urtean ateratakoa da Zarautzeko Andazarrate ospitalean. Maitek esan digunez denak kuadrila berekoak dira eta Imanol Vallejo eta Gerardo Castrillejo bisitatzera joan ziren.

dopi 

Zeintzuk diren? Goitik behera, ezkerretik hasita:

Igo ilaran: Manuel Unzueta, Pedro Beristain (t), Juan Manuel Beloki, Orencio Serrano, Manolo Gil, Jose Manuel Regil, Juanito Canales, Gerardo Castrillejo eta Manolo Aizpiri.

2. ilaran: Felix Irureta (t), Luis Irureta, Imanol Vallejo (t), Juan Cruz Gabilondo eta Felix Agirrebeña.

3. ilaran: (...), Martinez eta Fermin Arrese.

ANTZERK1A

TAUPADA antzeztaldearen

"ZALDI BAT, BI KOTXE ETA HOGETA HAMAR ILE" obra

Urriaren 7an, ostirala, gaueko 10¹15etan.

HERRIKO ANTZOKIANI,

Prezioa: 350 pta.

ANTOLATZAILEAK:

ELGOIBARKO IZARM Kultur Dkartera

ELGOIBARKO UDALA

LAGUNTZAILEA: GRUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Mendi garb... r... r... | eak



• Mendiak eta errekek garbitzeko sortu zen brigada iazko azaoran.

Udazkena bete betean sartu zaigu. Zaletuenak hasi dira perretxikutan eta mendizaleak temperatura epelaren konpainian dabilta mendirik mendi. Batzuek San Lorentzotik haruntzago joateko adorerik ez dute izaten; beste batzuek, berriz, mendi tontor gainetan ibili ohi dira. Ibili ala ez ibili, kontua da mendira irteten garenean, guztioi gustatzen zaigula zelaiak garbi eta errekek garden ikustea. Kaleen garbitasuna egiten den moduan, mendiak eta errekek ere norbaitek garbitu behar izaten ditu.

DEBEMEN elkar-teak, Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza erakundeak, inguruko mendi eta errekek zaintzeko ardura dauka. Mendiak, zelaiak, bideak, errekek... faktore naturalen eraginez, laharrez eta enborrez betetzen dira eta, batzuetan, objektu zein baino zein harrigarriagoz ere, kasu honetan pertsonen nagikeriagatik. Garbitasuna, gainera, beharrezkoa izaten da, batez ere, sute arriskua gutxitzeko eta arbolak hazteko. DEBEMENek bultzatuta, duela urtebete inguru garbiketarako brigadak sortu ziren. 18 pert-

sona kontratatu zituzten eginkizun horretarako: 16 peoi eta 2 arduradun. Zortziko bi lantalde eratu ziren eta lanari ekin zioten joan den azaroan. Elgoibarren ezezik, Deba Behea osatzen duten udalherri guztietan jardun dute garbiketara lanetan.

San Lorentzo erreken garbiketa

Erreken itxura esteti-

koa hobetetzeaz gain, ufallak ebitatzeko helburuarekin garbitu dira errekek. Uraren ildoak oztopatzen zuten objektuak kendu dira, beti ere, ildoaren norabidea errespetatuz. Kontu berezia izan dute bertan bizi diren arrain eta animaliei kalterik ez egiteko. Errekatik ateratako zaborra, Udaletxeko kamioi batean eraman zuten Mankomunitateko

zabortegira. San Lorentzo errekan 4,7 kmko bidea garbitu du brigadak, bost egunetako epean. Lau bidaia egin behar izan zituen Udale-txeko kamioiak ateratako zabor tonak erretiratzeko. Denerarik topatu zuten briedakoei San Loren-tzoko ildoan: Larra, eroritako pinuak, lurperatuta zegoen 30 metrotako errepideko hesi metalikoa, garbigailuak, motor bat, dozena erdi trafiko seinale, aterkiak, txatarra, bildots eta untxi azalak, zabor poltsak...

Errekatik ateratako motorraren inguruan ba omen dago anekdota bat:

Denetarik atera zuten errekatik: 30 metrotako hesi metalikoa, enborrak, dozena erdi trafiko seinale, txatarra, motor bat, zabor poltsak...

motorra guarda baten jabetzakoa omen zen. Behin, errekan arrantzan zegoen bati multa edo isuna jarri omen zion guardak. Arrantzaleak bengantzan motorra kendu zion guardari. Urtetan motorra desager-tuta egon eta gero garbi-keta egiterakoan errekan agertu zen.

Gazte Asanblada ere lanean


Bigarren pasadatxo-a eman diote aurtengo abuztuan San Lorentzo errekarari. Gazte Asanbladak antolatuta, 25 gazte inguruk Ermuaranbidetik hasita, San Lorentzo bertaraino garbitu zuten erreka. Txatarra, plastikoak, arropak, kotxeko bateriak, Seat 600 bateko kapoa, enbor eta adar piloa... Gazte Asanbladak naturarekiko errespetua piztu nahi du horrelako ekintzekin "norberagandik hasita, exenplua eman ez". Iaz hain zuzen ere, San Pedrotik Hiru-Iturrira martxa burutu zuten, garbitasuna egiten zuten bitartean.

Beste garbiketa batzuk

San Lorentzo erreka ez da garbitu duten bakarra. San Antolin auzoko Peto erreka-stoaren beheko partea joan den abenduan garbitu zuen brigadak, egun bateko epea behar izan zutelarik. Sasiak eta zuhaitz adarrak atera zituzten batez ere. San Migel auzoan, Aristi erreka-stoa garbitu zuten; kilometro bateko luzera garbitzeko bost egun behar izan zituzten.

Elgoibar eta Mendaron garbitutako tokiak:

- San Lorentzo erreka
 - Peto erreka
 - Aristi erreka
 - Hiru-Iturri
 - Pontxera
- Kilimon erreka (Mendaro)
- Goikola erreka (Mendaro)



• San Lorentzo errekatik ateratako hesi metalikoa.



• ad TraFiko seinale mordoa zeuden errekan.



• zI Hiru-Iturrin, sasiak kendu eta bidea garbitu dute.

Bigarren sei hilabele-ari dagokion epean bi leku garbitu dituzte: Hiru-Iturri eta San Pedro auzoan kokatuta dagoen Pontxera. Azken honen jabetza Udala-rena da eta mahaiak eta eserlekuak jartzeko asmoa dute. Pontxeran egindako lana Saturixo erreka-ren garbiketa, zelaietako laharren eta sasien kentzea eta pisten zabaltzea izan da.

Brigadako langileek eskuz egiten dute lana, belarra mozteko tresnez eta motoserrez lagunduta. Zenbaitetan su ematen zaio laharriari, beti ere, suteak ez pizteko kontu handiarekin. Bertan dau-den haritzak, pagoak, pinuak, platanoak... bere horretan laga dira.

Pontxerako taldeak aste honetan bukatuko du lana eta Deba eta Itziar arteko pistaren garbiketa izango da hurrengo egin-kizuna,

Hiru-Iturri

Hiru-Iturrin arbola inguruko laharra eta sasiak garbitu dituzte. Leku umela da oso, zuhaitz gehiegi dago inguruan eta eguzki izpiak ez dira sartzen. Horregatik dozena inguru arbolari marka bat egin zaie ondoren mozteko. Aurrera begira, Hiru-Iturri kon-pontzeko proiektu bat burutzeko asmoa dauka DEBEMENeko arduradun den Asier Albizuk. Milioi erdiko laguntza beharko litzateke egokitze lanetarako. Proiektua harrizko mairtaien ordez, ezurrez-koak jartzea litzateke, eta orokorrean, Hiru-iturriren itxura hobetzea.

Folero

OKINDEGIK
OPILDEG₁₂₁

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

11511 **CP***
4P*

Santa Klara -22
2r 74 26 32



AITZ
2KRDOAK
ARDO ETA PATT
PATATA SALME
Etxeraino
banaket
Errosario
2r 74 02

TIRO RIR

an Frantzisko, 54, 74 13 8



IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdia
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan

92 (943) 11 35 15 • It> ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



Karkizano

San Frantzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak

San Bartolome 18
74 08 49

ASTE HCINIEVAZ

Ki ometroak, Nafarroa Oinez...

Azken urteotan euskarari buruzko ekintza gero eta gehiago egiten dira. Beraien artean garrantzi-tsuenetako bat Kilometroak da, aurtentzen Legazpian ospatuko delarik.

Kilometroak orain dela hemezortzi urte sortu zen, Gipuzkoako ikastolak bultzatzeko asmoarekin euskararen normalkuntza lortzeko. Geroago hasi ziren ospatzen Ibilaldia Bizkaian, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats Iparraldean.

Orain dela hemezortzi urte, euskarazko irakaskuntza ia bakarrik ikastoletan egiten zen eta antolakuntza egitura bat eratzen hasi zen gure hizkuntzan egindako oinarriko irakaskuntza koordinatzeko. Egitura hori ikastoletan aspalditik sendoa da, eta beste zentru mota guztietarako oinarri gisa erabilia izan ohi da, publikoak zein pribatuak izan (ikasliburuak euskaraz, tresna informatiboak, etb...). Beraz, esan liteke Gipuzkoan ikastetxe gehienek euskaraz irakasten dutela.

Gehiengo hau ez da horren nabaria Bizkaian. Araban, Nafarroan eta Iparraldean, berriz, gutxiengo bat da. Han, guraso euskaltzaleek beren ikastetxeetan euskararen ezar-

pena bultzatzen dute, euskara zeharo diskriminagarri den egoeran, definizioz bereak diren lurraldeetan.

Gaur egun Euskal Komunitate Autonomoan euskararekiko euforia baretu den unean eta erakundeek hizkuntzaren gutxiengo egoera kontsolidatzeko neurriak hartzen dituzten unean, badirudi jai hauek jarraitu behar dutela, (zentru euskaltzaleen finantzaketaren bide bezala) eta beren eraginkortasunaren lekuko, aurtentzen lehenengo aldiz Zuberoako Ikastolen eguna ospatu da, horrela euskara beste lurralde historiko batean berpiztu delarik.



JESUS MARI SARASUA

joaten al zara 1kastoien aldeko jaietara?



MIREN GALDONA
14 urte, ikaslea

Juten naiz eta igandean ere badakat juteko astnua Kilometrotara. Oin lagunekin juten naiz, rekorridua egiten dou piskat eta eguna ondo pasau.



UNAI ARAKISTAIN
19 urte, ikaslea

Ahal doten guztietara juten naiz lagunekin, generalian juerga astnua-kin. Ondo daoiz holako egunak. Lehen rekorridua ere egiten gendun baina oin ez.



M. ASUN KORTABARRIA
37 urte, makina kontrolatzailea

Urtero juten naiz eta aurten ere baguaz. Umiekin eta beste batzuekin juten gera kuadrilan. Euskarren aldeko gauza hauek gustatzen jataz.



JESUS HOYOS
48 urte, transportista

Bai, sarritan. Aurten ere, aukera badago, joango gara Legazpira. Hara joan eta ibiltzeaz gain gastua egiten dugu bertan, diruz lagundu behar da eta.




GREGORIO ARREGI
46 urte, administraria

Oin semiak juten dia. Gu normalian Kilometrotara jun izan gera, bestiak urruti samar geratzen dia eta. Jai politxak dia eta komenigarriak.



ANGELA ARITZONDO
70 urte, etxeoandrea

Niri eskursiñuak eta ez jataz gustatzen, 70 urte dakadaz, eh! Baina hola-ko jaiak ondo daude, geure gauzengatik hola-kotxiak egin bihar dia.

 **CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.**

a~valc

Ot44. ito«.~144.
134,4m4 44,44,0~11

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

 **Kafetegia**

 **ARRATS**

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

• Istripua trenbidean

Joan den asteazkenean, arratsaldeko 3ak aldera, Bilbo-Donostia norabidean zetorren tren batek Antonio Hijano Moya elgoibartarra harrapatu zuen. Ikastola parean gertatu zen istripua, eta zehazki nola gertatu zen inork ez daki. Trenak kolpe bat eman zion harrapatzean eta zazpi bat metro haruntzago eraman zuen, trenbide aldameneko orma baten kontra jo zuelarik. Istripua gertatu bezain pronto, Gurutze Gorrikoek oraindik bizirik zegoela ikusita, Mendaroko ospitalera eraman zuten. baina ordu gutxitara hil egin zen.

• Esmaltea eta pintura

"Egur" Arte Tailerrak bi ikastaro antolatu ditu urrirako. Bata oleo pinturari buruzkoa da eta urriaren 3tik 24ra bitartean izango da. Bestean esmaltea sutan nola egiten den ikasi ahal izango da, urriaren 1 Otik aurrera. Izena emateko Ubitarte Plazako lokaiera (lehengo Ikastola) zuzendu arratsaldeko 6,30etatik 8ak arte.

• Atzerriko ikasleak herriko familietan

Lanbide Heziketarako Institutuak atzerriko eskola ezberdinekin burutzen duen ikasleen elkartrukea dela eta, aurtengo ikasturtean zehar, ikasleak bizitzeko familiak behar ditu. Ikasleak beren etxeetan edukitzeko prest dauden familiek 74 44 80 edo 74 44 85 zenbakietara dei egin dezakete prezioak eta baldintzak zehazteko.

• Bilboko manifestazio nazionalerako autobusa

Urriaren lean, larunbata, arratsaldeko 5,30etan Bilbon izango den manifestazio nazionalerako deia zabaldu dute Gestorak eta Senideak elkarteek, bertara joateko autobusak jarriko direlarik Plaza Handitik. Izena emateko lekuak Txuri-beltz edo Oiz Mendi tabernak. Autobusa arratsaldeko 4etan irtengo da.

Vella anai-arrebak izan ziren perretxikuetan onelak



Iriaki eta Edurne Vela anai-arrebek irabazi zuten igandean burututako XX. Perretxiku Lehiaketa. Inork baino perretxiku mota gehiago lortu zituzten, 137 ale ezberdin, guztira 671 puntu eskuratu zituztelarik. Partaide-tza aldetik, 33 talde animatu ziren, 40 taldek izena emanda bazuten ere. Bigarren postuan Gannix eta Hodei Ostolaza sailkatu ziren, hirugarren postua Igor Gorroñorentzat izan zen, laugarren postuan Antonio

Gomez, Jon eta Alex Vigara eta Luis Marquez sailkatu ziren eta bostgarren geratu ziren Sergio eta Laura Agirregomezkorta. Sari berezia eman zitzaion Agirregomezkorta anaiei Amanita Phalloides sailean, Ostolaza anaiei Entoloma Sinuatum perretxiku mota hartzeagatik eta perretxikurik interesgarrienaren sari berezia Ekaitz Gomezek, Josu Arri-llagak eta Kaiet Blancok jaso zuten.



Koznikiliak zuzenean marrazten aritu ziren Santiago Sequeiros marrazkilaria eta Kokoeko kideak igande eguerdian Kultur Etxeko erakusgelan. Beldurrari buruzko jardunaldien azken saioak burutu dira aste honetan. Azken ekitaldia, gaur ostirala, hilak 30, Herriko Antzokian emango den "La semilla del diablo" filmearen emankizuna izango da. Pelikula gaueko 22,15etan hasiko da.



Miloi bat pezetako saria irabazi du Alejandro Iriondok (ezkerrean) C. D. Elgoibar Elkartek egindako zozketan. Gorostiza tabernan erosi zuen errifa sarituak 582 zenbakia zeraman eta 1994ko urtarrileko hilebeteari zegokion. Errifa hauek hilean behin berritzen dira, egunero 2.000 pta eta ostiralero 5.000 ptako sariak banatzen direlarik ONCEko zenbaki sarituarekin batera. Denboraldi bukaeran sari potoloa banatzen da, miloi bat pezetakoa, baina hemendik aurrera milioia denboraldi amaieran eman beharrea, hilero 100.000 ptako sariak banatuko dira. Argazkian, irabazlea, Aitor Galarraga C.D.ko ordezkariaren eskutik txekea jasotzen.



San Migel auzoko jaietan girorik falta ez dela argi erakusten du goiko argazkiak. Bertsolariak, herri kirolak, bolo jokuak, trikitilariak eta dantzaldiak, gau pasa eta guzti, izan dira San Migeleko jaietan. San Migel eguna igaro eta gero, azken jai egunak geratzen zaizkie auzotarrei eta azken juergak parranderoenei. Astebukera honetan bertso saioa, pilota partiduak eta auzotarren arteko bazkaria izango dira. Eguraldia lagun izatea baino ez da falta.

■ Xabi Zelaia da epaituko duten hurrengo intsumisoa

Urriaren 4ean, astearta, Xabi Zelaia elgoibartarra epaituko dute Donostiako Auzitegi Porbintzian intsumisu izateagatik. Epaitzen duten zazpigarren elgoibartarra da Zelaia eta espero daitekeen epaia "edonolakoa izan daiteke" Talde Antimilitaristako kideen ustez. Izan ere, epaitu dituzten zazpi elgoibartarrek denetariko zigorrak jaso dituzte: 3 hilabete, urtebete, 2 urte eta 4 hilabete... Elgoibarko Antimilikoen iritziz "PSOE alderdia da intsumisoen egoeraren errudun". Epaiketa salatzeke, enkartelada bat burutuko da asteartean, iluntzeko 7etan.

■ Irlandari buruz hitz egin zuen Karmelo Landak

HBko kide den Karmelo Landa izan zen joan den astean Kultur Etxean Irlandan bizi duten bake prozesuari buruz mintzatzen. Landa, Ipar Irlandan egon berri da eta Sin Fein eta IRAko kideekin izandako esperientziaren berri eman zuen. Bake prozesuaren inguruan sortutako jakinmin handiaren erakusgarri izan zen hitzaldira urreratu zen jende mordoak. Karmelo Landaren ustez, "serioski aztertu behar da Irlandan gertatu dena eta ondorioak atera, gero, Euskal Herrian aplikatzeko".



Roberto Azpillaga:

"Umetan ere, futbola baino nahilxao naban pelotia"

Roberto Azpillaga elgoibartar gazteak hogeita bost urte ditu. Orain lau bat urte, Tijuana aldera joan zen, zesta puntan jokatzeko kontratua egin zioten eta. Gaur egun Orlandon bizi da, bertan egiten du lan, puntista profesionala da. Hauek ere

urtebeteko denboraldia egin eta gero, hilaheteko oporraldia hartzen dute. Urtero etortzen da Elgoibar aldera garai hori aprobetxatuz. Aurten, ordea, bisita berezia da, Mexikon ezagutu zuen neskarekin ezkontzera etorri baita.

Ume gehienek pilotan jokatu izan dute haurtzaroan.

Bai. Ni ere akordatzan naiz zela ibiltzen ginan gu lagun artian, frontoian edo beste edozein paretetan esku pelotan jolasian. Lagunerik futbola gustatzen jakuen gehixen eta ni, en kanbio, beti izan naiz pelota zalia.

- Behin zesta bat jarri zuten zure eskuetan eta...

Hamabi urte izango nitxun aitxak Markinatik zesto bat ekarri zianian. Momentuan gustau jatan eta segiduan afizionatu bezela hasi nitzan, ikasten Iehenengo eta jokatzan beranduago. Haseran Markinan aritzen nintzan, Gernikan eta Gasteizen torneo asko jokatu nitxun, Gipuzkoako Federazivan eta Olinpiadetako preselektzioan ere egon nitzan.

- Eta konturatu orduko Tijuana.

- Bueno, Iehenago Floridara juteko kontratua eskaini zien baina pelotariexek greba bat hasi zeben eta hiru urtian jokatu gabe egon zian. Hogeita bat urte nitxunian jun nitzan Tijuana, Mexikora.

- Zer moduz han?

- Oso ondo, ez gendun batere problemarik euki. Gainera han espainoia hitzegiten danez komu-



"Ameriketara dirurik eta bestelakorik egongo ez balira, ez ginake jungo, ez?"

nikatzia ere erraza zan. Euskaldun asko geunden eta girua ere oso ona zaka-gun. Orain Orlandon nago eta han ere primeran.

- Noiz arte?

- Urte batzuk behintzat pelotan jarraitzeko asmua dakat, bastante ondo irabazten dogu eta nahiz eta urruti egon gustatzen jatan egien ari naiz, ez? Ia urtiak zela juten diazen aurrera, ze apuesten asuntua bastante bajatuta dabil baina beste zortzi-hamar egiten baditxut jolasten, ondo.

- Zergatik dago Arneriketara zestapuntaren merka-

tua?

- Bueno, hemen frontoi gutxi daude eta pelotari asko. Han ondo pagatzen debe, jendiari asko gustatzen jako apostatzia eta ondo dijuan bitxartian...

Apostuen gorabeheran al dago zuen lanpostua?

Ez, guk urtebeteko kontratua dakagu eta hilebetero hainbeste diru irabazten dogu. Baina gero beste premixio gehigarri bat dakagu; kinieletan sartzen bazera, diru sari bat jasotzen dozu lortzen dozun postuaren arabera.

- Zein da kiniela sistema hori?

- Ez dia partiduak bezelakuak. Zortzi numerokin jokatzan dogu eta hasten dia jokatzan bata bixaren kontra. Tantua lortzen dabana hurrengo sartzen da, hiruaren kontra joka-tzeko. Tanto motzak dia eta zazpi tanto lortzen dabanak irabazten dau.

Zestak zenbatean behin aldatzen dira?

- Hilean behin berrixa erosi bihar da, bestela oso zaharrak geratzen dira. Presupuesto haundixa juten jaku zestetan, bakoitzak 27.000 pta balixo dau eta. Guk erabiltzen ditzugunak intxaurrenduakin eginda daude. Gero badaude minbrez indakuak ere.

- Zer da zesta punta amerikarrentzat?

- Espektakulo bat gehixo. Amerikarrak pelotia ikustera zaldixen karretara bezela juten dia, denboria pasatzera eta apostuak itxera. Deporte minoritariva da, han irabazten debena saski-baloia eta beisbola dia.

- "Arneriketara jua nintzan xentimorik gabe, handik etorri nitzan maitia bost miloiren jabe..."

- Bai, izan leike ze bestela ez ginan Han dirurik eta bestelako gauzarik egongo ez balitz ez ginake jungo, ez?

Ikasturte berria, Ikastola berria

Berak esana



Aurrerantzean herriko ume guztiak Ikastola berrira joango dira.

Iritsi da azkenik iraila. Udazkena, hego haizea, kaleak estaltzen dituzten lehen hosto lehorrak... eta klaseak. Baina aurtengo ikasturteak badu zerbait berezia. Illendaron, goizero haur guztiak toki berera zuzenduko dira.

Azkenik, duela hamaika urte erneturiko ametsa egia bihurtu da. 1992 urterako proiektua bukatua egon arren, Eusko Jaurlaritzak bere onarpena eman gabe zuen oraindik. Urte horren amaieran eginiko bilera batean, Mendaroko Ikastolak ikastetxe publiko izateko asrnoa azaldu zuertean, Eusko Jaurlaritzak bere oneritzia eman zuen. Honela, 1993an ikastetxearen eraikuntzari

hasera eman zitzaion, eraikitze lanak aurtengo uztailean amaituz. Abuztuan eta irailean ikastetxearen hornitze lanak egin dira.

Ikastetxe honek OHORako zortzi gela ditu eta hiru haur-hezkuntzarako. Baditu bestelako gelak ere, hala noia, erabilera ezberdinetarako bat, gorputzaren heziketarako beste bat, irakasleen gela, idazkaritza, dutxak, liburutegia, komunak, informatika gela eta kirol ekintzatarako patioa.

Azpitarragarriak dira ikastetxe honek eskaintzen dituen abantaila ezberdinak ere. Irakasleak lehentasun osoa du baina kirol eta kultur ekintzek ere izango dute beren tokia. Ikastolako lokalak aspaldidanik erabili izan dira mota guztietako ekintzatarako (Ikastolako zuzendariak hala nahi izan duelako). Orain, Ikastola publikoa denez, herrian sortzen den edozein ekintza egin ahal izango da Ikastolako lokaletan. Honela, aurten posible ez den arren, espero da datozen urteetan futbito txapelketa zein antzeko ekintzak herrian bertan egin ahal izatea.

Badirudi ikastetxe honek abantaila ugari eskainiko dituela, bai ikasle bai eta herritarrentzat ere.

Hamaika urte helburu baten atzetik ibili ondoren, azkenean lortu da. Ikasleen gurasoak, irakasleak eta Udala, azken hamaika urte hauetan etengabe eta etsigabe lan eta lan ibili dira ikastetxe berri hau lortzeko. Orain arte sakabanaturik egon gara eta horrek erakutsi digu koordinaketa egoki bat edukitzeko, ikastolaren nortasuna finkatzeko eta azken batean heziketa maila hobetzeko, eraikuntza bakar batean egoteak duen garrantzia.

Hori dela eta, gure hezkurtz proiektuan argi eta garbi azaltzen dugu, oinarri bezala, ikastetxe egoki baten beharra. Bestalde, betidanik herri eskola baten jarrera azaldu dugu eta horrek herriarentzako zerbitzu bat izatea dakar. Gaur egun ditugun aukera berriekin (jolas tokia, erabilpen anitzetarako gelak...) helburu hau beteko dugula uste dugu.



IÑIGO SORAZU
IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Yoga ikastaroa

Datorren hilaren 3an, astelehena, Mendaroko Kultur Etxean, Yoga ikastaroari hasera emango zaio. Klaseak, astelehenetan eta asteazkenetan izango dira, eguerdiko 2'30etan hasi eta 4ak bitartean. Kuotari dagokionean, hileko 4.000 ptakoa izango da. Izena ematea, Botikan, Sastrierian edo 192237 (Idoia) telefonora deituz.

Kilometroak 94rako autobusa

Datorren igandean, urriak 2, Kilometroak 94 izango da Legazpian. Mendaroko Euskara Batzordeak autobusa antolatu du bertara joan nahi dutenentzat.

2

Irteera goizeko 8'30etan izango da, Estazio aurrean. Prezioa, berriz, 600 pta. Izena emateko Txirristaka, Ormola eta Arboleta tabernetara jo daiteke eta azken eguna larunbata izango da, eguerdiko 1ak aldera.

1995. ekitaldirako zergen aldaketa

Irailaren 29an izan zen Udal-Plenoark, 1995 urteko Udal Zergen gaia aztertu zen, besteak beste. Hona hemen bertan hartutako erabakiak: Ur horniduraren zerbitzuari dagokionean, iazko tarifa (Yo5a igoko da. Zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzua, berriz,)/04,5a igoko da iazkoren gaineratik. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak ere %5eko igoera izango du. Pilotalekua erabili nahi duten herritarrek 650 pta ordaindu beharko dute orduko eta kanpotarrek 1.000 pta. Hileta zerbitzuei dagokionean, nitxoan lurperatzeak eta lurretik ateratzeak 9.500 ptako kostua izango du, lurrian eta panteoian, berriz, 17.000 pta. Ibi iraunkorraren tarifa iazkoaren gaineratik %5a igoko da.



Dantza taldea Aubixan

Urtero bezala, Mendaroko Dantza Taldearen ikasturteari amaiera emateko, taldeko dantzariak Elgoibarko Aubixa baserrian pasatu zuten irailaren 17 eta 18a. Eguraldia euritsua izan zen arren, ez zuten aspertzeko astirik izan, jolasak, antzerkiak eta bestelakoak antolatu baitziren. Hona hemen urtean zehar dantza taldeak egin dituen irteera eta aktuazioak: irteerak, Bergarara, Oreretara eta Oñatira eta aktuazioei dagokienean, Mendaron Umeen Euskal Jaian, jubilatuen Egunean eta Santana jaietan eginikoak aipa ditzakegu. 1994-95 ikasturtea urrian hasiko da.



Parke berria Santa Kruzen

Santa Kruzeko parajeetan dagoen atsedenekuan mahaiak eta aulkiak jarri zituzten asteazkenean. Uztailetik kolunpioak, txirristara eta bestelako jolasak aurki ditzakete bertara hurbiltzen diren haurrek. DEBEMENeko brigada batek egin ditu lan guztiak eta azken honekin batera, uztailean Santa Ana ermita ondoko gunea ere egokitu zuten mahaiekin, aulkiekin eta egurrezko barandao batekin. Atsedenaldira hauek egiteaz gain, Kilimon eta Goikola errekek ere garbitu dituzte azken urtean.

ASPALDIKO KONTUAK

'44:1 Ee 1t5 e 4i/t6 e9Ue« eagfteaa

Jende askok dakian moduan, bada gure etxe ondoko mendian haitzulo bat, oso ezaguna bera: Haitz Beltz.

Gu gaztiak ginala, orain dala 40-50 urte, izugarrizko erremerixak egiten genitxuan haitzulo horretan. Gazte talde bat elkartu, bazkaria eta soinua hartu eta bertan bazkaldu ondoren arratsalde osorako erromerixia prestatzen genduan. Han jarduten ginan lekaixoka dantzan eta ez zan umoria falta izaten.

Baina haitzulo horren inguruan badia makina bat historixa eta sinismen. Orain horietako bat det goguan eta berehala kontatuko dizuet:

Behin, Ereintzako morroiak ez-baia atera zaban: "baietz ekarri hagin adarra Haitz-Beltzeko kobatik".

Jun ei zan mutil hori eta arbolari kolpe egin zionian, zulotik txakur haundi batek erten egin zion. Txakurrak adarra emango ziola esan zion baina horretarako hiru egia esan behar zizkiola gaineratuz. Honen aurrean, hara zer erantzun zion

mutilak:


Lehenengo egia: "Txakur haundiak inoiz ikusi ditut baina zu baino haundixarik ez".

Bigarrena: "Iletargixa argixa da baina eguzkixa argixaua".

Hirugarrena eta azkena: "Eguzkixa berua da baina sua beruaua".

Horrela, hiru egiak esan eta gero, txakurrag hagin adarra eskura eman eta hara zer esan zion: "Ez zaitetz deskuiduan berriro ordu honetan etorri". Gaueko hamabiak ziren.

Mutila hagin adarra hartu eta etxera bueltatu zen. Ohera sartu eta ez ei zan mutil hau gehiago jaiki.



FELIXIANO GARATE



5~:4 9,0Preier, Enpresalarieseko ikaslea Valladoliden

I Noiz joan zinen Valladolidera ikastera? **I** Orain dela bi urte, 1992an.

II Zaila egin al zitzaizun haseran han egotea? **I** Haseran bai, baina berehala moldatu nintzen.

I Behin behinean etortzeko asmorik? **I** Bai, Euskal Herrian bizi nahi dut.

Zer nahiago, han ala hemen lan egitea? **I** Hemen, giro hobea dago eta.

I Krisia non igarri duzu gehien?

Leku guztietan. Agian hemen gehiago, ezagun gehiago dauzkadanez krisiaren arazoa gertuagotik bizi dudalako.

■ Euskal Herria ala Valladolid?

I Euskal Herria udan eta Valladolid neguan.

W Martxarik ba al dago? **I** Kristona. Kanpoko ikasle asko gaude eta hiriburua da.

W Izan al duzu arazorik jendearekin? **I** Ez. Jendea oso irekia da eta nirekin orokorrean oso ondo portatzen dira.

■ Bost urteak ondo hukatzeko asmorik? **I** Asmoa bai baina urteak pasa ahala ikusiko dugu.


■ Euskal Herriko ala Valladolideko mutilak? **I** Euskal Herriko mutil ederrak.

W Euskara galtzen ari zarela igarri al duzu? **I** Ez, ahal dudana egiten dut kontaktuan egoteko.

Elias

"Kilimolan betikook jarraitzen dugu bueltaka"

Kilimol Futhol zelala 1974ko azaroaren 30ean inauguratu zen. Hala ere, Kilimoia ekipo hezela hiruzpalatt urte Iehenago sortu zen. Futbolzelairik ez zegoenean, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko zelaietan jokatzeko zuten. Askok, plaieroetan jokatu izan dute. Elias Arriola Kilimoiko gaur egungo presidentea da. Pasa diren egunetan zenbait kezka sortu izan dira datorren urteko zuzendaritza berria dela eta. Hona hemen argitu dizkigunak.



• Aurten Zuzendaritza berria?
- Iazko berberak jarraitzen dute lauk ezik. Aurten zazpik osatzen dute direktiba.

9 Herriko jokalariek soilik izango al dute jokatzeko aukera?

- Ez. Herriko jokalariai asko diren arren, Mendarokoak ez diren ere aukera berdina izango dituzte. Zein jokalaria jarri, entrenatzailearen lana da.

0 Arazo ekonomikorik ba al dago?

Gai hau oraindik ikutu gabe daukagu ez baikara harreman zuzenean jarri Udaletxearekin. Liga hasi da eta aurrera egin behar dugu.

0 Kategoriaz jeistekak suposatuta al diru galerarik?

- Mementuan ezin dugu jakin. Liga aurrera doan heinean jakin ahal izango dugu.

0 Proiekturik planteatu al da zelaiaren hobekuntzan?

- Ez. Oraingoan dagoen bezala jarraituko du.

• Aurten ere jubenil eta infantilik gabe?

Alebin ekipoa ateratzeko ahaleginak egiten gaude. Honetarako ezinbestekoa da gurasoen laguntza eta partehartzea. Halere, herriko ume batzu kanpoko ekipoetara joan direnez jolastera, Debatik lau bat jokalaria ekarri beharko genituzke.

• Ikastolak eskaini al dezake laguntzarik zentzu horretan?

- Posible litzateke baina ez luke Kilimon izena hartuko, "Kilimon Ikastola San Jose" baizik.

• Kategoriaz igotzeko asmorik?

- Bai, nola ez, baina hori oso zaila da. Aurten hiru edo lau talde igoko dira. Datorren urterako errekonbertsio bat egitekotan dira: lgo erregionala bi talde ezberdinez osatu, honela 2. errejionaleko ekipo gehiagok kategoriaz igotzeko aukera izan dezaten.

0 Nola ikusten duzu Kilimoia geroa?

- Jendeak gero eta gogo gutxialago Betikook hor jarraitzen dugu bueltaka. Oraingo gazteek errezerat jotzen dute. Halere, direktiban badi-tugu zenbait gazte lanean.

0 Gogorra al da Kilimoiko presidente izatea?

- Gustuz egiten bada ez da gogorra. Ilusioa behar da. Lana beti da lana baina konpentsazioak ere badauzka.

• Zer esango zenieke mendarotarre partiduetara joan daitezen?

- Afizio piskat har dezatela. Kilimoiak, ekipo baten izena izateaz gain, Mendaro izena darama beste herrietara.

4

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual. Zigor Txurruka, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.

77

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

TOKI ALAI jatetxea

- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

EXMAHE

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGO1BAR

III Jael II

IRE bizikleta dendakoa• **Afizioa dena, ofizio bihurtu al da?**

Bai. Beti gustau izan jataz bizikletak. Ibiltzia eta konpontzia.

• **Zer nahiago, mendikoa ala**

bidekoa? **1** Karreterakua gustau izan jata gehixao beti.

• **Eta gehien saltzen dena?** **1** Orain mendikua, moda bat da eta.

• **Saltzen duzun bizikletarik**

garestiena? **1** Kataloan badauzkat milioi ingurukoak ere baina dendan 200.000 ptakoak.

• **Eta merkeenall** 34.000 pta ingurukoak.

• **Zein prezio izan dezake Indurainek Anoetan erabili zuen**

bizikletak? **1** Ez dauka preziorik, beretzat apropos egin zeben eta hori ezin da baloratu.

• **Txirrindulari bat?** **1** Marino.

• **Negozio "borobila" al da?,** Oraintxe bertan, justukua.

• **Zer da bizikleta bati sekula egin behar ez zaiona?** **1** Ez dakixanak ez dau ikutu bihar.

• **Pintxazoak ekiditeko?** **1** Kamara bereziak daude edo bestela forro bat, tetlon antzeko zeozer.

• **Bizikletarako kolore bat?** **III** Berdia.

• **Zenbat bizikleta daukazu zureak direnak?** **R** Bost.

• **Arrisku gehiago mendian ala bidean?** **1** Bixetan, mendian ahilidadia euki bihar da ez jausteko eta karreteran kotxiak daude.

t.b) **Marka bat?** **1** Biderako *Pinarelo* eta mendirako *Canondale*.

• **Egarriaren aurka?** **1** Ura limoiakin eta azukriaekin, glukosarentzat.

• **Zer nahiago, hotza al beroa?** **1** Hotza badago erropa jantzi eta kitto.

• **Diskotekak ala tabernak?** **1** Ez bata eta ez bestea.

• **Koloniarik?** **III** Bai, baina aldatzen juten naiz, ez daukat konketu bat.

• **Neska bat konkistatzeko?** **1** Ez dakat taktikarik, sortzen danian.

• **Pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?** **1** Sintzerua izatia.

• **Zer ez zenuke sekula barkatuko?** **1** Engainua.

• **Ostiral ala larunbat gaua?** **1** Ostiral gaua, trankilaua da eta.


• **Janari bat?** **1** Txipiroiak.

• **Zer ez zenuke eramango irla baterall** Telebista bat.

• **Goizeko dutxa, hotza ala beroa?** **III** Epela.

• **Joan berri diren oporretako oroitzapen bat?** **1** Itsaso epela.

Castellon-en egon naiz.

**KILOMETROAK 94**

DOINUA:

Loreak udan

Legazpi aldean tokatu zaigu aurtengo Kilometroak berriro ere izango dira jaialdi eta bertsoak jende ugarik hau preparatzed jarri dituzte gogoak diru horrekin betekoituzte legazpiarren asmoak.

Zahar ta gazte egun horretan Legazpiara hurbildu zirkuitoari bira bat eman eta eguna pasatu jende pila bat egongo dela gauzak saldu eta saldu eta mesedez esateizuet ikastoleri lagundu.



KEPA MENDIKUTE

**40ZOTEC121**

San Bartoioime 34-35 Tel: 74 03 45

Eskulanean
4~(5)-ePt
Pade~
74,1-ta%
47
50«dom4

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?**Hitzeaiteko: landu zure ahotsai**

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARI LDEITU 971` **74 15 56 10 03 51**

Urriko hauteskunde mahaietako izenak atera dira



III oan den astelehenean, hilak 26, jendaurreko bilturan, urriaren 23an izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde mahaiak eratu ziren. Hona hernen aipatu mahaietan zeintzu egon beharko diren, lehendakari zein bokal bezela.

Plaza Txikian: Alexander Arrieta, Itziar Oñederra, Jose M. Astigarraga, Alberto Mujika, M. Luisa Arozena, Nerea Mugerza, Manuel A. Hernandez, M. Jose Malvar, Mireia Iriondo, Ana M. Mata, Susana Gurrutxaga, Esther Mugerza, Angel M. Azpiazu, Rosario San Martin, Eva Barrutia, M. Jesus Ulacia, Agustin Armendia eta M. Carmen Zubiaurre.

Zaharren Biltokian: Tomas A. Azpeleta, Jesus M. Plazaola

eta Antonio Azpilikueta.

Pedro Muguruzan: Iñaki Badiola, Ana M. Oimo, Fernando Coro, Arantza Arriola, Eduardo Zubiaurre, Igone Perez, Alberto Gonzalez, Pilar Ortega eta Aitor Arakistain.

San Roken: Juan Luis Apeilaniz, Luis M. Muruamendiaraz, Jon Iñaki Egaña, J. Antonio Urbieta, Gloria Ibarluzea eta Jesus Luis Perea.

Urasandin: Antonio Pedro Azpiazu, Carlos Martinez, Iñigo Agirre, M. Teresa Vitores, Monserrat Egaña eta Xabier Osoro.

Santa Klaran: J. Angel Iriondo, Aitziber Olaizola eta Ivan Larrañaga.

Altzolan: Juan Bautista, Andres Astigarraga eta Gorka de la Horra.

au muni5J1JJ lcddm '12M"
(Juitiatri,21un

Autobusa I Oetar plazan

PREZIOA: 500 ptan

**IZENA EMATEKO:
Tktivd 3ettz**

Urriak 7, ostirala, azken eguna




Hargintza enkantea

- XVIIleko Santa Klara komentu berria eraikitzeko hiru enkante egin ziren.
- Ⓡ Lehenengo: 1609ko Igokunde egunean izan zen komentuko lokutorio ondoan, "lur honetako ohitura den legez" kandela piztuta eta joan den astean aipatu genituen baldintzak aurrean zituztelarik, Hona hemen partehartzaileak:
Martin Landerrain, Juan Agirre, Francisco Elordi, Francisco Butron eta Martin Galarraga.
- Martin Galarragaren proposamena onartu zen lehen enkante honetan. Hargin maisu honek, 85 errealetan eskaini zuen hargaitza eta obra hamalau urtetan bukatuko zuela esan.
- Bigarrena: 1609ko ekainaren 11n egin zen.
Martin Ormaetxeak, Muruetako biztanle zenak, bere proposamena aurkeztu zuen. Baldiniaz eta oinplanoa aztertu ondoren, obra hauen arabera eraikitzea behartzen zela esan zuen. Berak, "estadoa" 4 dukatetan eskaini zuen eta gainontzeko guztia Martin Landerrainek jarritako baldintzatan.

- E Ama abadesak eta komentuak enkaniea onartu zuten. Hafa ere, hirugarren enkanterako data zehaztu zen, obra baldintzarik onenan eskaintzen zuenari eman nahi zioten eta. Honen aurrean, harginek protesta egin zuten.
- Hirugarrena: 1609ko ekainaren 28an.
 - Bernabe Solanak, Durangokoa, eskainitako 200 erreale berari emanez gero, harlangaitzeko "estadoa" 42 errealetara jetsiko zuela esan zuen. Gainontzeko baldintza guztiak ez zituen aldatu baina botako ziren horma zaharren hondokinak, harlandua ezik, berari ematea ere eskatu zuen.
 - Honen aurrean, kandela itzali zenez eta inork ez zuenez beste proposamenik egin, Bernabe Solanari eman zikaion errematea.
 - Ⓡ Azken enkante honeiaiko lekukoak, Urrutiategi Migel, Joan Saez Aranburu eta Santiago Irunaga izan ziren.
Enkante guztietako notarioa, berriz, Lucas Irunaga.

PELLO ARRIETA



Saturnina Ziaran

(1897-1974)



1897ko maiatzaren 20an jaio zen. "Maestra de la escuela txikita" izenez ezaguna zen.

1923tik 1966ra arte, jubilatuta arte, eskola publikoetako esko(aurrean maistría izan zen.

Lehenago, bere ama izan zen 19 urtez maistra, Maria maistría.

Satur lanean hasi zenean, zera esan zioten Udaletxekoek: "1a amak beste urte egiten dituzun!". Satur 43 urtetan izan zen irakasle, inoiz 80 haur ere eduki zituztelarik.

Eskolan hasi berriak zaindu behar izan zituen. 14 hilabeterekin hasten ziren eta 11 hilabetekoak ere joaten zitzaizkion.

Pentsatzekoa da umeek adin horretan zikinduko zutena eta zenbat ipurdi garbitu behar izango zituen. Hizkiak ezagutzen ikasten zuten, haita aitxaguria errezatzen ere, mugimendu eta guzti.

Saturren eskolan ez zegoen oporrik, 1935. urtean Udaleixek hilabeteko oporraldia (abuztuan) ezarri zuen arte.

1974ko azaroaren 28an hil zen.

E P
Jr]

3
1

5
1

1
1

C
C

cp
3
dE

*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

8111A0

Xake txapelketa

Zubi Ondo Elkarteak antolatuta, "Errosarioko Amabirjinaren II. Xake Txapelketa Erdi Azkarra" burutuko da kale horretako jaien barruan. Urriaren 3an eta 4ean izango da txapelketa, arratsaldeko 5,30etan hasita. Jokatzeko era, 10 minutu jokalaria bakoitzeko izango da. Izena emateko Zubi Ondo elkartera zuzendu edota Tomas Conderekin harremanetan jarri (74 34 29).

Kiroldegiko abonoak

Olaizaga Kiroldegia urte osoko abonoak berritzen ari da. Horregatik Kiroldegiko harreratik pasa daitezten eskatzen zaie •bazkideei abonoak tramitatzeko. Bazkide egiteko hiru modu eskaintzen ditu Kiroldegiak, urte osorako, sei hilabeterako eta hiru hilabeterako. Urte osoko prezioak: 10.130 pta, banakakoa, eta 18.785 pta, familiarra.

Txirrindulariak, neguko denboraldirako prest

Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeak neguko denboraldiari hasera emango dib uniaren 16an, goizeko 9,30etan mendi buelta bat bizikletaz eginez. Lagun Taldeak herriko neska-mutil guztiak gonbidatu nahi ditu irteeran parte har dezaten.



Atherto Ihrrategi:

"Hurrengo espedizioa Nepalera egingo dugu"

Everest, K2, hurrengoa? Egia esan, deskantsurako sekula baino mentalizatuago etorri ginan. Baina hilabete batzuk daroiagu hemen eta apur bat aspertu gare eta bagabitz ideia batekin buruen.

1 Zein ideia? - Nepal-era joatie zortzi milako bat egitera. Ideia hor dao baina oindik konkretau barik.

1 K2 mendirik zailena al da?

Nik ez nuke katalogauko mendirik zailena moduen. Zailtasuna ez doia izenakin bakarrik, begiratu bihar da, zer mendi dan, zein altura dakan, zein bide aukeraten dan eta zein zailtasun dakan bide horrek. K2k errespetu gehixao ematen dau, tragedia asko egon die eta eguraldi aldaketak be oso bixkor emoten die. Oso altua da eta ruta errexena ere nahiko gogorra da.

1 Benetako arriskuan ikusi duzue inoiz zeuen burua? - Arriskua danien dao. Mendixan baino kami-fluen euki ditzut txirripak. Mendixan tamainako arriskua toki askotan dao.

1 Azken aldian 13 mendizale hil dira. - Suerte txarrari lotuta dagoen zerbait dela uste dot. Oso erreza da altura horretan labaindu eta beheraino jutia. Suer-tia, prudentzia, espe-rientzia... gauza asko hartu bihar die kontu-tan.

1 Mendizaleen artean psikosirik

- Adina: 25
- Zailtasunak: Edozein kirol eta musika,
- Fama gustuko al duzu? "Desaperzibido" pasetia gustetan jat.
- Juergazalea? Izandakua, baina gero eta gutxio.



sortzen al da? - Mendiko istripuak gertatzen diazenien asko afektatzen dizu, baina hortan mendizaliak nahiko hotzak garela uste dot. Pareta batian zintzilik zaudenian ez zera hortaz gogoratzen.

1 Etxekoak ohitzen al doaz?


- Ama ia ohitxu jaku, baina oindioi oso gaizki pasatzen dau. Baina badoia mentalizatzen.

1 Felixek konjelazio arazoak izan zituen. - Makalun, 91n arazoak izan genituen. Oso instruktiboa izan zan, asko ikasteko aukera eman zigulako. Esperientzia falta hori ordaindu gendurt eta harrez gero ez dogu ezer euki.

1 Mendi gailurreko ueña katurik al dago? Bai, asko gaine-ra. Iristen zaren kondizifiuen arabera dao nere ustez. Edozein mendizalek poza sentitzen dau baina behera jeis-teko gogua izaten da gehixao.

1 Ezagutzen duzun parajerik politena?

Erakargarrixenetari-kua Nepal izan leike, baina orain arte ikusi ditzudan guztiak gus-tatu izan jataz, Txina-ko inguruak, Pakista-neko mendi basatiak, Josemiteko parkeak...



ALUMINIOZKO AROZTEGIA


POLIURETANOA • P.V.C.

® MISTOA (EGURRA- ALUMINIOA)

-K/ J.M. Linazasoro, 9.

Tren geltoki ondoan

Tel FAX 75 62 28 MENDARO





Aitor Juaristi izan zen San Migelen ehiztari onena

Aitor Juaristi ehiztari gazteak irabazi zuen joan den zapatuan San Migel auzoan burutu zen ehiza txapelketa. Gazteek aise lortu zuten zaharrak gainditzen. Lehen eta bigarren postuan berdinduta geratu ziren hegazti kopuruari dagokionean, Aitor Juaristi eta Patxi Arriola. Baina garaipena Aitorrek lortu zuen, denbora ere kontutan hartu baitzen. Txapelketan 24 ehiztarik hartu zuten parte eta guztira 42 faisai ehizatu zituzten.

Argazkian, lehen biak irrifartsu, Aitor Juaristi kopa eskuan eta Patxi Arriola faisiekin.

SAILKAPENA:

- 1. **Aitor Juaristi** (4 faisai)
Sarrera ordua: 11,43
- 2. **Patxi Arriola** (4 faisai)
Sarrera ordua: 12,53
- 3. **Jose LWs Azpiri** (3 faisai)
Sarrera ordua: 11,48
- 4. **David Conde** (3 faisai)
Sarrera ordua: 12,14
- 5. **Jose Ramon Rodriguez** (3 faisai)
Sarrera ordua: 12,20



eta ikusle mordoa biltzea lortu zuen Ibai Gimnasioak joan den larunbatean Kiroldegian izandako erakustaldian. Judoarekin hasi zen ikuskizuna. Ibaiko judoek "llave" ezberdinak erakutsi zituzten eta defentsa pertsonalerako teknikak ere bai. Bi ordu pasa iraun zituen saioan aerobic-a, taekwondo-a eta gimnasia erritmikoa ikusteko aukera ere izan zen.

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 1

12,00: Elgoihar Euskaiduna (Jubenilak)

13,45: Urki Arrasate (Jubenilak)

16,00: Elgoibar - Aretxabaleta (Neskak)

18,00: Elgoibar Gazteak (2. errejionala)

Igandea 2

10,00: Elgoibar Pasaia (Infantilak)

12,00: Eibar Urko Motiamendi (Jubenilak)

16,00: Urki - Eibartarrak (2. errejionala)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 1

16,00: Elgoihar Leizaran (Kadete neskak)

EM enn

ESKUBALOIA

"Elgoibar Hiria III. Eskubaloi Txapelketa"

(Kadeteak neskak)

Jauja 0 Elgoibar 13

Bergara 8 - Elgoibar 6

FUTBOLA

Touring 1 - Haundi 3

Elgoibar 6 - Segura 0 (2. errejionala)

Elgoibar 3 - Zumaia 0 (Jubenilak)

Elgoibar 3 - Almen 0 (Kadeteak)

Elgoibar 9 - Inst. Lizardi 2 (Neskak)

AISIAKIN

Transfer eta makina berezietan, beti aurrera

Agirregomezkorta Hnos. S.A. edo Aisiakin enpresa dagoen tokian, errepide nazionalaren alboan, Olasarte-berri baserria zegoen lehen, Baserriaren lokaletan eman zituzten Agirregomezkorta anaiek industria munduan lehen urratsak. Erraminta makinaren sektoreari lotutako lantegia izan da beti.

Asieran produktu pneumatikoak eta erraminta makinentzako osagaiak egiten zituzten. Salmentak handitu ahala produktu mota ezberdinak fabrikatzen hasi ziren, automatizazio pneumatiko eta oleoneurnatikoen alorrekoak batez ere. Espezializazio maila altua lortu izan dute alor hauetan. Eskaria eta langile kopurua handituz joan ahala, egungo lantegia eraikitzen hasi ziren 1965. urtean.

Transfer eta makina bereziak

Hamabost langilekin ekin zioten urte horretan transfer eta makina bereziak egiteari. Sistema berritzaileak ezartzearen aldekoak izan dira. Sasoi hartan inguruko industria munduan ezezagunak ziren sistema pneumatikoak eta oleoneumatikoak lehenengo, eta hidraulikoak gero, erabiltzen zituzten. Makinen diseinua, fabrikazioa, eta salmenta da lantegi honen iharduera nagusia. 1984tik CNC deritzon Kontrol Numerikoa ezarri zuten. Etorkizunean kontrol numerikodun Transfer Makina Flexiblea serie txikiko mekanizatuentzat soluziorik aproposena izan daiteke arduradunen ustez.

Mekanizatu ezberdinentzako makina hauen eraikuntzan lortutako esperientziari esker, sektore askorentzako produktuak egitera iritsi dira.



- **Oraingoa baino lantegi haundi eta modernoagoa egiteko asmoa dute.**

Honako sektore hauetan dituzte bezeroak: automobila, bizikletak, elektratresnak, zerrajera, kirola, kirurjia, nekazaritzako sektoreak,...

Serieko produktuak

Produktibitatearen izenean, erraminta makinaren automatizazioaren atalean lan egiten jarraitzeaz gain, puntako teknologiarekin egindako serieko elementuak barnera-



tzen joan izan dira beti: mahai mugikorak, plato banatzaileak, mordaza pneumatikoak, ... Gaur egun, punta puntako enpresa da Aisiakin, plato banatzaileetan.

Salmenten zati garrantzitsu bat, %35a, Autonomi Elkartearen bertan saltzen da. Beste horrenbeste, %30a, atzerrian saltzen da, Europa eta Hego Amerikan batez ere, %15a Nafarroan eta gainontzeko %20a Estatuan zehar. Egun, kalitatea ziurtatzeko plan bati ekin diote, homologatutako kalitate agiria lortu ahal izateko.

Formazio aldetik, Lanbide Heziketa mailako ikasketak gutxienez izatea eskatzen zaie langileei eta ikastaroen bidez plantilan daudenei erreziklatzeko eta formazioa sendotzeko aukera ematen.

Gaur egungo eraikuntzak dituen hiruzpalau solairuak eta makinentzat egokitutako 1000 m²ko espazioa haunditu beharrean daude. Asmoa lantegi berria eraikitzea da. handiagoa eta modernoagoa, baina momentuz proiektua baino ez da.

..N1 PRESARIEN IF IITXA

- X 1ZENA: AGIRREGOMEZKORTA HNOS. S.A.
- X 2ZENA: IZEN KOMERTZIALA: AISIAKIN
- X 3ZENA: SORRERA URTEA: 1963
- X SORTZAILEAK: Agirregomezkorta anaiek.
- X GERENTEA : Jose Uriá.
- X IHARDUERA NAGUSIA: Transfer eta makina bereziak.
- X BIGARREN MAILAKOAK: Serieon egindako produktuak.
- X LANGILE KOPURUA: 50
- X URTEKO FAKTURAZIOA: 750 milioi.
- X ESPORTAZIOAK %tan: % 30a
- X HELBIDEA: Autonomia kalea, 4.
- X TELEFONOA/FAXA: 74 25 04/30 89

goibarko ernultak bildu ditu Kolldo Jzarralidek liburu batean

errian zutik dirauten bost ermiten berri eta desagertutakoen berri ere ematen du Koldo Lizaraldek argitaratu berri duen liburuan. Bost urteko lanaren emaitza da, inkesten bidez burutu duena. Ermiten inguruko hainbat datu eta xehetasunez gain, dokumentazio grafiko ugari ere eskaintzen du liburuak. Ermitekin zerikusia duten alderdi ezberdinak jasotze ditu lanak, alderdi sozial eta erlijiosoak, gauregungo egoera, eta

oraindik ere auzoetan eskaintzen duten zerbitzua. Planoak lortzeko beharrezko datuak hartu ziren, ermita batzuren eraikuntza planoak ere agertzen direlarik. Era berean interesgarri izan daitezkeen datu historikoak ematen dira.

"Ermitas de Elgoibar" izeneko liburu hau Koldok idazten duen hirugarrena da. Lehenago, aurtengo urtarrilean hain zuzen, "Apuntes Etnograficos de Elgoibar I" liburua argitaratu zuen.




- Salbatzailearen umiaderoa Santa Klaran. Koldo Lizaralde, egilea.

200 ikasle dantza jaialdian

Dantza Eskolako 200 bat ikaslek parte hartu zuen ostegunean Herriko Antzokian burutu zen dantza jaialdian. Oraingo honetan dantza estilo ezberdinak erakutsi zituzten dantza eskolako hurrek: modernoa, klasikoa... Izan ere, aurten burutzen den bigarren jaialdia da honako hau. Ekainean euskal dantzei buruzkoa izan zen. Irakasleak Lurdes eta Edurne Odriozola, Arantza Aginako, Abel Iriondo eta Jon Lizarralde dira.

Eduard Olivellaren argazkiak ikusgai

Ongarri Argazki Elkartearen eskutik, Eduard Olivella Bartzelonako argazkilariaren lanen erakusketa izango da Kultur Etxean urriaren 6tik 24ra arte. Olivella, argazkilaritza irakaslea izan da Kataluniako estudio garrantzitsuenetan. Erakusketa ugari egin ditu, indibidualak zein kolektiboak, Europa eta Estatu Batuetako galeriarik garrantzitsuenetan.



INTERIORES
CLARA ARRILLAGA
Dekoratzafie-Proiektatnilea

-PROIEKTUAK-ERREFORMAK
-LOKAL KOMERTZIALAK
-ETXEBIZITZAK-ENPRESAK

Tel:74 40 55-74 40 19. Errosario 15

545^{1,4}
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San frantzisko 49-1 tel. 74 11 89


Lehiaketak

VI. KOLDO MITXELENA sariketa OHO, BBB eta L.Hko ikasiei zuzendua dago. Bost arlo ezberdin daude: kondkia, pintura, poesia, bertsoak eta ipuina. Saria, Donostiarekin anaikidetuta dagoen herri batera bidaia izango da, hala nola, Trentora ~~Wies-~~ babenera (Alemania) edo Iplymouthera (Inglatera). Guztira hogeit hamar emango dira, arlo bakoitzeko bostna. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 20a izango da.

Eibarko Udalak **X. EIBARKO HIRIA IPUIN LEHIAKETA** antolatuko du. Bi maila egongo dira, 14tik 17ra bata eta 18tik 25era bestea. Gai librekoa izango da eta lanak euskaraz nahiz erdaraz aurkeztu daitezke. Lanak Udaletxeko Kultura Sailean aurkeztu behar dira azaroaren 25a baino lehen, gutzienez 7 orriko luzera izan beharko dute eta gehienez 10.

ORIXEREN OMENEZ VII. BERTSO-PAPER LEHIAKETA antotatu du Orixako Udalak. Bakoitzak nald beste lan bidali ditzake eta gaia librekoa da. Bertso-paperak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da.

Larunbatean, gabe 11 etan, **KIKO VENENO**ren kontzertua izango da Lekeition. Bertara hurbiltzen diren guztiek, abeslari honen azken diskoko zein bestelako kanta zaharraok ere entzuteko aukera izango dute.

*flmaja, 7ineei:***"Kaliforniako eliza batean euskaraz hitzegin naban"**

LB Zertara joan izan zara Ameriketara?

- Lehenengo helburua ingelesez ikastea da, baina gero konturatzen zera hara juterakuan beste gauza asko ere ikasten dituzula; euren bizimodua, beste kultura bat eta Elgoibartik kanpo beste bizimodu batzuk ere badaudela.

E Zein izan da zure bizimodua bertan?

Familiatan egon izan naiz eta suertez beti tokatu izan jataz familia jatorrak. Goizez klasiak eduki-tzen nituen eta arratsaldean lagunekin edo nere familiarekin irtetzen nitzan, inguruak ikustera.

III Ikasten al da ingeleza?

- Bai. Jendia oso zabala da eta familiakin ere asko ikasten da. Hemen egonda ere ikasi laike baina ez da berdina. Han derrigorrez hitzegin behar duzu ingelesez, egunean hogeita lau ordutan.

III UBI Ameriketara ikastea ere pentsatu zenuen, ez?

- Hasera batean bai baina gero esan zidaten bertako hezkuntza maila hemen daukaguna baino bajuagoa dela eta horregatik azkenian erabaki naban ez jutia. Flori-

Aspaldian, gazte asko atzerrira joaten da, toki horietan hizkuntza biziz, ahalik eta hobekien ikasi eta barneratu asmoz. Horietako bat dugu gure gaurko protagonista. California, Florida eta Canada ezagutzen dituen Amaia Urzelaik, 17 urte baino ez dituen elgoibartar gazteak. Udaran, eta hamalau urte zituenetik, hilabete pasatzera joan izan da toki horietara.

dan ezagutu nitxun Canariaseko batzuk, baina urte mordo bat zera-matenak Ameriketara bititzen. Haien esan zidaten eurei haseran gogorra egin zitzaizela ingelesez ikastea baina hizkuntza ikasi eta gero hemen baino askoz errezagoa dela dana, errezegia askotan, aspergarria ere egiten dela.

E Bizitzeko toki bat?

- Bizitzeko Euskal Herrira. Han beste giro bat dago, mila kultura desberdin nahasten dira...

CJ Kontaiguztu bertan bizi izan duzun esperientzia bereziren bat.

- Floridan egon nitzanian, nere familiariak ez dakit ze erlijio zakan baina igandero juten zan elizara, apaizik gabeko elizara. Bertan edozeinek egin zezakeen berba. Behin esan zidaten ia ni euskeraz hitzegin teko prest egongo nitzan. Baietz esan nien eta han egon nitzan euskeraz berba egiten, gero nik itzultzen nien eta hemendik eramandako musikia ere ipini niuen. Oso interesatuta zeudela ematen zaban.

123 Datorren urtean nora?

- Nere asmua berriz ere **EEBB**ra jutia da, kanpamento batera monitora bezela.

Garajeak

GARAJE BAT saltzen da San Roke kalean, Kiroldegi parean, 15,93 m=koa .Itxia da.
tr 74 06 09

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehen bait lehen.
Tr 74 22 70 lgor
Gauetz 9etatik 10etara

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Marraduna. Prezio onean.
A 74 08 79

GARAJE BAT ALOKATZEN DA Urasandin.
7 74 31 07

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
ri 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.
Tz 74 08 05

PEUGEOT 405 BAT SALTZEN DUT.
o 14 30 52 Jose Maria
Deitu 20,30etatik 22etara

SIAMES BAT eskaintzen da doan.
72 74 39 19
Gauetz deitu

4/4ko BIOLIN BAT saltzen da.
tr 74 17 84
getatik aurrera

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT.
Bigarren eskukoa.
Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
Z 74 18 51

MENDIKO plastikozko Kollach Viva Soft **BOTA BATZUK** saltzen ditut.
Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)
if 12 04 44
Deitu eguerdian 1,30-2,00

MOUNTAIN-BIKE bat eta URETAKO PAIPO bat salgai, biak prezio merkean.
u 74 26 91

Bainu gelarako **MANPARA, ARMAIRUA eta ISPILUA** saltzen ditut. Prezio oso onean.
Z 74 19 81 Ana Mari

NESKA BAT BEHAR DA bi ume zaintzeko, arratsaldeko 5etatik 9etara
S 74 41 32
Fernando/Bernar

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsaldez eta astebukaeretan egun osoz eta gauetz.
T? 74 09 85 NuriWana

Edozein **TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN** da. Grafikoak sartzeko aukera.
Is 74 41 77 Idoia
7422 77 Iratxe

Hezkuntza zientzietan lizenziatuak (Pedagogia) **OHO eta REMeko klase PARTIKULARRAK** emango lituzke irailetik aurrera. Talde murriztuak.
ir 74 39 24 Maite

Magisteritza eta ingenieritza teknikoan iizentziatua naiz eta **PARTIKULARRAK** ematen ditut euskaraz eta erdaraz. **OHO eta BUP.**
74 28 53 Alazne

MEKANOGRAFIAKO KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Mendaron.
75 61 48 Idoia
72 75 51 35 Nuria

ENPRESARIALESEN DIPLOMATUA NAIZ eta klase partikularrak ematen ditut.
ir 74 39 89 Mari Carmen

FRANTSES KLASEAK ematen ditut.
Er 74 04 59
Deitu 2- 3etara / Setatik aurrera

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.
74 44 04 Ana (Gauetz)
tr 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren **PISU BAT KONPARTITZEKO** lagun baten beharrea gaude.
Er 65 38 76 Olatz


LOGELA BAT DAUKAT ALOKATZEKO DONOSTIAN (Gros).
Egongela dauka. Irakasleak, irakasleak edo langileak.
Zi 27 72 07

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m", itsasora begira eta gela guztiak kanpokaldera ematen dute..
Z 60 41 20
Arratsaldez Setatik aurrera

ETXE BAT SALDU NAHI NUKE Pedro Muguruza Etorbidean. Bi gela, saloia, sukaldea eta komuna ditu.
IT 74 30 97

SIBERIAN HASKY BAT galdu da Karakate mendi inguruan, duela 3 aste. Kolore beltza eta zuria, begi urdinak. 3 urte ditu eta emea da, Hasky izenari erantzuten dio. Diruz saritzeko prest nago.
U 10 18 96

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

larrialdiak **461111**
Txancla hartzeko **743354**
Planning **742950**
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria **743864**
Mendaroko Ospitala 756264
Drogomenpekotasun Z **741008**
Ociol Emalleak **743936**

GARRAIOAK

Eusko Trenbidea k **740442**
PESA (Eibar) **112131**
Taxi Geltokia **740898**

UDALA

Euskara Zerbitzua744366
Kirol Zerbitzua **744415**
Kultura Zerbitzua **742158**
Mendaroko Udala **756100**
Ongizate zerbitzua **743736**
Udaletxea **741050**
Udaltzaingoa **741394**

BESTELAKOAK

Caritas **740142**
Elgoibarko Izarra **741626**
IM1 **741196**
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia **743525**
Musika Eskola **742145**
Mintxeta **744315**
Parrokia **740842**
Polikiroldegia **741361**
Postebcea **741547**

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia **740526**

IKASTETXEAK

Herri eskola **740879**
I.M.H. **744132**
Institutua **740267**
Ikastola **744441**
L.H.1 **744480**
Pilar Ikastetna **741331**

KOMUNIKABIDEAK

BAREN **744112**
El Diario Vasco **7414073**
El Mundo **74226**
El Correo Español **741082**
Egin **118421**
Deia **741157**
Zazpiki **743474**

OSTIRALA

22,15 ZINEA

"La semilla del diablo"

I Herriko Antzokian

Antolatzailea: Kokoe

LARUNBATA

19,30.22,15 ZINEA

"Los picapiedra"

✓ Herriko Antzokian

21 IGANDEA

9,00 MENDI TRABESIA

Deskarga-Legazpia

✓ Irteera Sigmako zubitik

Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra

eta Morkaiko

16,30.19,30.22,15 ZINEA

"Los picapiedra"

✓ Herriko Antzokian

51 ASTELEHENA

15,00 TREBAKUNTZA

PERTSONALERAKO PROGRAMA

4/ Kultur Etxean

Antolatzailea: Drogomenpekotsunen

Prebentziorako Zerbitzua.

22,15 ZINEA

"Los picapiedra"

✓ Herriko Antzokian

ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Detras de la noticia"

1 Herriko Antzokian

(Ikuslearen eguna)

OSTEGUNA

9,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Eduard 011ivellaren argazkiak

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Ongarri Argazki

Taldea

Hilaren 29a arte.

7-1 OSTIRALA

22,15 ANTZERKIA

"Zaidi bat, bi kotxe eta hogeita

hamar ile" TAUPADA (Estreinaldia)

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

tx a

FARMAZIAK:

1, larunbata: Etxeberria

2, igandea: Etxeberria

3, astelehena: Bidasolo

4, asteartea: Bidasolo

5, asteazkena: Bidasolo

6, osteguna: Bidasolo

7, ostirala: Bidasolo

OKINDEGIA:

2, igandea: ZABALETA

121 1:1 12:1 111 A

HARRIKETARRAK

USA 1994

Zuzendaria: Brian Levant

Aktoreak: John Goodman,

Elizabeth Perkins, Rick Moranis,

Rosie O'Donnel.

Hanna-Barberaren pertsonaia

ezagunen adaptazio bat da. Steven

Spielbergen eskutik datoz

oraingoan "The Flintstones", "Los

Picapiedra" edo "Harriketarrak".

Pedro Picapiedra eta Pablo

Marmolen arteko adiskedetasuna

eta bi familien arteko gorabeherak

kontatzen dira filmean. Gaizki

ulertu bat dela eta, Pablo eta Pedro

haserratu egingo dira.

ERRoSARIo KALEKo JAIK

Urriak 2, igandea

17,30: Jaien hasera.

18,00: Errosarioa San Bartolome elizan Eliz abesbatzak lagunduta.

Urriak 3 astelehena, 4 asteartea

17,30: Errosarioko Amabirjinaren II. Xake Txapelketa. Partida erdi azkarrak.

Urriak 5, asteazkena

17,30: Txafliu jaurtiketa.

18,00: Erraldoi eta buruhandiak.

19,30: Trikitilari eskolako kalejira.

20,30: Dantzaldia trikitilariekin.

Urriak 6, osteguna

17,30: Txafliu jaurtiketa.

Jarraian, haurrentzako jolasak

19,30: Trikitilarien kalejira.

20,30: Otoitzaldia Amabirjinaren irudiaren azpian.

Jarraian, dantzaldia trikitilariekin.

Urriak 7, ostirala

Errosarioko Amabirjinaren Eguna

17,30: Txafliu jaurtiketa.

18,15: Herri Kirolak.

20,15: Itxaropena abesbatza.

Jarraian, dantzaldia trikitilariekin.

21,00: Afaria Gure Bide elkartean, Plaentxi bikotea eta Dakintarekin.

SAN MIGELIK

Urriak 1, larunbata

4etan: Haurrentzako jolasak.

Ondoren: Txokolate jana.

Gaueko 10etan: Bertso jaialdia:

Lizaso, Ziarda, Peña, Meabe, Egaña eta Solozabal.

Ondoren: Rekalde anaiak.

Gaueko leian: Txekorraren zozketa.

Urriak 2, igandea

11,30etan: Meza.

Ondoren: Pilota partiduak.

2,30etan: Anaiarteko bazkaria.

8etan: Txokolate jana

Egun osoan Laja eta Landakanda trikiifflaria.

¡aster!

ESKAPARATISMO IKASTAROA

IRAUPENA: Zazpi astelehen (9etatik letara)

ANTOLATZAILEAK: Gipuzkoako Merkatarien Elkartea eta Txankakua Merkataria Elkartea

PREZIOA: Bi elkarteetako bazkideak: 3.000pta.
Elkarte batekoak: 5.000 pta.
Bazkide ez direnak: 10.000 pta.



GIPUZKOAKO
MERKATARIEN
ELKARTEA

INFORMAZIO
GEHIAGO



10 66 66



MERKATARI ELKARTEA

f. UDAKD EIZIZETOTU LEMAK.Erft

I TAIEZAZ SAIC E



"Naturaren edertasuna"
Koido Aierdi, 25 urte



Ezkerretik eskumara: Alberto Agirreazaldegi, Aitor Intxausti,
Gotzone Aierdi eta Aitor Eizagirre.



"Eguzidaren onena itzala"
Aitor Intxausti, 24 urte


BARRENen aldetik mila *esker* parte hartu duzuen guztioi eta datorreru LarTEAM ere izango dugu *elkarren berri*.



GENERALI ASEGURIJAK

"RONKINA" Aitor Eizagirre. Santa Ana 20. Tel. 74 41 01

DCL37-85



DEBAPE

INPRIMATEGIA

komunika zio gra fikoa

0-SGI E101111A1
 bere alokezpena
 Dadkin. S.A.L.ek
 €
 elu 93_1vvetik, avte grafikoen meyka-
 tuan clauden hit guve nabia leffiltZU-
 €
 Vik onena eskaintiea haita

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUAK
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

OLASO Industrialdea, 27
 Tel: 74 40 58 Faxa: 74 41 78
 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Sukalde eta haltzari erakusketa ikusgarria

Aukera zabala egongela,
 logela eta tresilloetan.
 Klasikoak, modernoak,
 errustikoak eta jubenilak.

Hiru solairutako
 3.000 m²ko erakusketa.

Larunbat arratsaldetan **IREKITA**

fⁱTh



HALTZARIAK
 Ti177.217117771
 liziar ga ra - Tel 19 91 00 **DEBA**

